

"Lessiveuse"-a-ren erabilerak

- Eta gero berriz, gure etxen aldiz, baginixin aska bat, gu xantza bagintxun gure etxen, askak bazitxun bestenaz beste batzu errekarat joaiten zitxun, aska hartan eta mihiseak eta trenpatzen gintxin, gero xabonatzen eta "lessiveuse"-ian ezartzen, ta "lessiveuse"-a hek oraiko [...] bezala zitxu, languago ta goruago, eta gero hek bazixien erdian "arrosair" bat, lehen zola eta zola batian bazuxun, bospasei zentimetra goroxagot [...] bat bezala, baizxin zola eta "lessiveuse"-ain zer bat artian, ta gero hak bazixin tuiu bat petik goiti, ta "arrosair"-a kaskoan. Ta ordian han ezartzen xindien eta xuriketak xabonatuik, eta gero ezartzen xindien eta "lessive"-a, "la lessive de Saint Marc" edo gintxin usaia, haikilan ezarri.

- Ah, marka ona bada.

- Ta gero pian suia egiten, eta gero suia berotziaikilan hur hura, eta orai hurez betetzen gintxin eta gero eta xuriketa hek, bestenez eta erreko zitxun, hurez bethatzen eta gero hur hura berotziaikilan, burrustan eta gañeko "arrosair"-etik hur berua jiten zuxun, hur erakina, hak arrozatzen zitxin xuriketak eta hura ararazten ginixin oren bat bezala egosten...

- Ba.

- Ta hori bezperan egosaraziko gintxin eta gero biharamun artio pausatzeroa utziko, ta biharamunian latsatuko.

- Ah, soizu, ta gero latsatzen... errekan, ez?

- Ba eta batzuk errekan, nik gure etxen bagintxin aska, han egiten ginixin eta harrien gañian zafla ta brozatu ta badakixu ta gero hur hura bera ez galtzeko hartan eta zera trenpatzen zitxun gizonen pantalon eta ator eta...

- Trenpatu deitzen duzu...

- Hurian ezarri.

- Ah, ados.

- Hurian trenpatu han zikinak eta hant zizten ta gero hek ere broza ta xuritu ta kanpoan hedatu.

Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen karietara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala